


Astekaria

BARREN elgoi



Lan bila krisi garaian



LARRAISIAGA autoeskola

O (1 Ci O




Santa Ana 11.w 74 10 11 - ELGOIBAR

OLAIZAGA KIROLDEGIA



KIROLA
ETA
OSASUNA
ZURE
ESKUETAN



a. (1./af(fIrr,nri
rf n
1/1(a. 1 (1,th. a ITCSr'a
fl
trioxfizir ed(fiffr-ITZI T,F1 fi rFf.
fm:7:1 fir

MATRIKULA ZABALI

Elgoibarko Izarra.

Elgoibarko 1.1dala.

Alberto Agirreazaldegia.

Aniel ligarteburu.

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

Ainhoo Lodoso

Jasone Osoro.

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

Nekane Etxaniz.

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

Irati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, fsabel Ansofa, Nfere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Utzi Etxabe, Asier Ekaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izoro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galculos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, Ekaitz KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Ittiki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarricigual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vaiguez, Ana Vila, Miryam Villasante, Maitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

Imanol Larrañaga

Gertu koop. E.

(Zubillaga Otiai)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Beti egon dira KLASEAK eta egongo dira

5 ehaska umilean jaiotakook, sarritxo entzun dugu tituluak dioen hori, halere, esaera horrek bere baitan daraman esanahia ahaztu gabe, gure sehaska apal hori maite dugunok, bagera eta izango gera.

Antzerako zerbait gertatzen ari dela iruditzen zait Pribatutasun eta Publikotasun aferarekin, izan ere, klaseak ondo bereizi nahi duen jendea ari zaigu jo ta ke hor badagoela aldea aldarrikatuz.

Jakin badakigu, gizartea gero eta eskuinzaleagoa ari zaigula bilakatzen: arrazakeria zabalduz, ahaltsuenaren legea ezarritz... azken finean, klaseak gero eta gehiago nabarmenduz.

Pertsonak garen aldetik, baldin eta bere kontzeptua ondo ulertzen badugu, beharko genuke jakin, sehaska apain edo apalean hazita ere, jaiotzeko eman zaigun eskubidea bezain beharrezkoa dela bizitzekoa, duin bizitzekoa, alegia.

Pribatizazioaren bidea indartuz gero, inork gutxik izango luke azken urteotan bezalaxe aukeratutako ikasketak egiteko aukerarik. Klase batzuek baino ez lukete horretarako abagunea eta urteetan lorturiko bizi-maila ganorazko hori, pikutara

lihoake!

Guzti hau, noren mesederako? Berriro ere, klaseen bereizketa egiten ari ote gara?, eta noren edota zeren izenean?

Gure gizartea, nahikoa kritikoa dela esango nuke esparru publikoarekin, hala behar gainera, baina izango al dugu, erakunde pribatu horiekin kritiko izateko modurik?


Hor dago gakoa! Maila publikoan iruzurrak eta injustiziak ematen badira, pribatuan, zer esanik ez! Eta garbi dagoena da, nor den kasu guztietan kaltetuena: aukeratzeko modurik izan ez duena.

Ez zait Pribatutasuna gustatzen, ez zait gustatzen, beti ere honen barruan bataren edo bestearen interes ezkutuak daudelako eta gainera ez zaio inoiz kaltetua gerta daitekeen honi ezer kontsultatzen. Hor Jaun batzuk dira eta horien mesedera egin behar dantza.

Filosofia ederra XX. mendearen bukaera honetarako, dena den, denok dakigu Historia ziklikoa dela eta garai batean arbuatu genuen hori, berriro ere datorkigula dirudi.

Itziar Agirregomezkorta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



tID11111

Ba al dauka Udalak Herriko Antzokian euskarazko pelikulak (bertakoak edo bikoiztutakoak) emateko asmorik?

Udal Kultur Teknikariari galdetu diogu eta berak baietz erantzun digu. Asmoa baietz baina eskaintza handiegia ez denez, ezin duela ziurtatu. Bere ustetan, euskarazko filmak haurrentzako emanaldiak sartuko dituzte batez ere.



Aste honetako kexa aurreko asteko txaloaren haritik dator. Gizonezko bat etorri da BARREnera eta zera esan digu: San Lorentzo erreka garbitzea ondo dagoela eta, beraz, txaloa merezi zutela. Baina, errekatik ateratako zikinkeriak bide batzerrean laga omen zituzten eta hau ez zaio batere ondo iruditzen.

On Tomas Zubizarreta

Elgoibarko herrian izandako mediku handi bat izan zen On Tomas Zubizarreta. Askoren gogoan da oraindik gizon honek urte mordoan erakutsi zuen eskuzabaltasuna. Behartsuekin eta premia handienak zituztenekin erakusten zuen adeitasunak oroimen gogoangarria utzi zuen elgoibartarrongan. Azpimarratzekoa bere eguneroko mediku lanean gaixo gertatzen ziren guztiak puntualki bisitatzeko hartzen zuen ardura, urrutiko baserrietaraino ere erreparorik gabe iristen baitzen oinez.

Guzti hau dela medio, On Tomas Zubizarretaren izena elgoibartarren artean luzaroan gogora dadin, besterik ez bada ere, kale bat gizon honen izenez bataiatzea egoiki litzatekeela uste dugu. A.S.

Intsumisioa eta errepresioa

Nafarroako zortzi intsumisio Estatuko espetxe ezberdinetara aldatu zituzten joan zen astean. Iruñeako kartzelan bi garren gradua betet-zen zeuden intsumisio hauek Soria, Zaragoza, Teruel, Madril, Toledo eta Ciudad Realeko espetxeetan daude orain.

Kartzeletako agintariek leku arazo eta presoen gaineko errejimen kontuak aipatu dituzte sakabanatzearen arrazoi modura. Zortzi gazteak ez omen ziren Iruñeako espetxearen legera ondo "moldatzen".

Elgoibarko Talde Antimilitaristaren ustez, intsumisioaren mugimenduan

beldurra sortzeko hartu dute agintariek neurri hau. Kontutan hartu behar da Iruñeako kartzelan dauden intsumisioek ekintza ugari egin dituztela beraien eta gainontzeko presoek eskubideen defentsan. Orain dela gutxi bi preso komun hil ziren Iruñean HIES gaitzak jota. Intsumisioek gogor salatu zuten gertaera hau, eta ordutik aurrera ehitzen joan dira antimilitaristen aurkako neurri errepresiboak. Argi dago, beraz, sakabanatzearekin espetxe barruan sortzen ziren protestak isildu nahi izan dituztela.

Gauzak horrela, Elgoibarko Talde Antimilitaristak bere elkartasun osoa adierazi nahi die lekuz aldatu zituzten zortzi intsumisio nafarrei baita kartzelan dauden gainontzeko beste guztiei ere.

Errepresioak ez du intsumisioa geldituko.

Elgoibarko Talde Antimilitarista

Portada polita izan zen

Hbko zinegotzia den Jorge Hernandok idatzitako eskutizari erantzuna eman nahi diot.

Euskal Parlamentuan Saharai herritarrekin elkartasun ekintza onartua izan eta gero, eta ondoren Elgoibarko Udal Plenuan emandako baieztapenarekin, Saharara abiatu nintzen Daura herriarekin anaikidetzera.

Hernando jauna, nere jokaera garbia izanda, herri mailan beti egon naiz eta eongo naiz prest herriko gehienok eta Euskadi mailan Euskal Parlamentuak erabakitzen duena betetzera, demokratikoki euskaldunok botatutako dena, eta jadanik uste dut badela ordua demokraziari dagozkion erregelak onar ditzazun.

Jose Inazio Elkoro-Irbe, Alkatea

HARRIGORRIGOIKO ERROWAIBERRITARRAI





dry

ste honetako erretratua **Mari Carmen Cid-ek** laga digu. Berak esan digunez erretratua 1963-64. urtean ateratakoa da. Gaur egun antzema-tea erraza ez bada ere, Maalako parkean atara zuten argazkia. "Milagrosa" deituriko ikastetxeko ikasleak izandakoak dira formal-formal agertzen diren neskatoak.

Zeintzuk diren? Goitik eta ezkerretik hasita:

1. go ilaran: **Juli Urain, Arrate Abasolo, Maria Luisa Badiola, Maria Luisa Vila, Rosa Mari Leiaristi, Maria Isabel Maguregi, Kontxi Eguren, Sara Etxeberria** eta **Anabel Andonegi**.

2. ilaran: **Encarnita Plaza, Mari Carmen Cid, Mari Carrillo, Begoña Mugerza, Arrate San Martin, Gloria Bollar, Mirentxu Arrieta, Maria Luisa Gurrutxaga** eta **Rosa Maria Etxaniz**.

3. ilaran: **Mari Carmen Cid Fidalgo, Mari Carmen Olano, Eulalia Rodriguez, Maria Perez, Mari Carmen Gurrutxaga, Blanca Maguregi** eta **Mari Carmen San Martin**.

4. ilaran, eserita: **Maribel Gonzalez, Rosa Mari Perez-Cortes, Murita Escudero, Ana Mari Odriozola, Mari Tere Arakistain, Juanita Yaggié, Maria Pilar David** eta **Arrate Zubigarai**.

• • • **AIDERDI EGUNA 94** • • •


ttly

EAFPNVk jeltxur eta lagun guztioi Salburua/Gasteizen, irailaren 25an, ospatuko den Alderdi egunerako gonbitea luzatzen dizue. Autobusak antolatu ditugu.

AKANPADA: EGik Elgoibarko gazte guztiak gonbidatzen ditu hilaren 23, 24 25an egingo den akanpadara. Honetarako autobusak doan izango dira.

Kasu bietan izena emateko: Batzokia taberna 74 08 21/Foruen plaza 74 27 44

Langileak birkolokatzen



Zenbatetan entzun diogu etxekoren bati, langunen bati edota ezagunen bati honako hau esaten: "lanik gabe nago eta lanpostu bat nahi dut". Aurrerantzean sarriago entzun dezakegun zerbait da, erraminta nnakinaren sektorea kaxkar dabil osasun aldetik eta. Orain gutxi ikusi ditugu Lagun enpresako langileak beraien lanpostua galtzeko zorian, pankartak eskuetan, kaleratzearen aurka manifestazioak bu rutzen. lagunetik kalera joan daitezkeen 89 langileez gain, Geminisetik ere beste 29 langile joango dira kalera. Egoera beltza langileena. Hileroko diru iturria eten egiten da bapatean. Bi edo hiru seme alabez osatutako familiaren bizi maila mantentzeko modua desagertu egiten da. Etxeko giroa eskastu dezaketen tentsioak eta arazoak azaltzen hasten dira. Hileroko soldata gaidu dituen 45 edo 50 urte bitarteko langile horri burura datorkion lehen gauza honako hau da: Zer egingo dut nik orain?

JOSE RAMON MANDIOLA Enplegurako proiektuaren koordinatzailea

"Lana topatzerakoan aukera guztiak hartu

E Zein da zuen lana?

- Langile batek lana geritzen duenean, egoera berri horren kontzientzia hartu behar du, hileko diru sarrerarik gabe geratu den kontzientzia. Ezer baino lehen, pertsona ezagutzeko elkarrizketa bat egiten dugu, jendearen perfila ezagutzeko baliagarri dena. Gure lana hor hasten da. lan bulego partikular bat modukoa litzateke, lana

bilatzen eta enplegu-proiektu partikularrak gauzatzen laguntzen duena.

Nola topatzen duzue lana krisi gara;an? Formula majikoren bat al duzue?

- Ez, lana egon badago baina arazoa da norberaren ezaugarrietara egokitzen den lana topatzea. Irunen gertatu zitzaigun hori. Irungo aduanako langilearen

perfila, administrari bate-na zen. Dena den, oso garrantzitsua da norberaren obileziak ere kontutan hartzea. Irungo administrari bati altzari muntatzaile lana topatu genion, haseran subkontratatu EYezaict eta gero autonomo modura.

Nola erreaktionatzen du jendeak haseran?

- "Lehenago neukan moduko lana nahi dut". Horixe izaten da lehen

erantzuna. Baina hori posible ez denez, errealtatera mugatu behar. Lana galtzean, pertsona horrek jarrera aktiboa izan dezan saiatzen gara, moralki animoa eman eta enpresa batera lan bila doazenean, lehen baino egoera hobean joan daitezen da gure nahia. Autoestima arazo bat egon ohi da.

Arazoari aurre egitea Funtsezkoa da, beraz.

Lanpostu berri bat topatzea ez da erraza. Erraza da, ordea, egoera traumatiko horretan desmoralizazioak eta erresignazioak jota, etxean geratzea eta indetnizazioaren diruari eutsiz, lan mundutik erabat aldentzea.

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan sailak egingandako ikerketa batean argi ikusi zuten zenbait industri sektorek berregituratu eta berrantolaketa sakon bat behar zutela, nazioarte mailan konpetitu ahal izateko. Hemendik abiatuta sektore berdineko enpresen aliantzak bultzatu ziren "Aliantza Estrategikoak" deitutakoak, kasu, erraminta makinaren sektoreko "Grupo"ak. Elkartzean zenbait lanpostu galdu egiten dira. Egoera honetan daude, hain zuzen ere, "Grupo M-H" osatzen duten *Lagun, Geminis, Ladarasa* eta *Maher Holding*. Prebisioren arabera, talde honek 180 lan-



Geminis eta Laguneko langileak "birkolokazio teknika kolektiboez" baliatuko dira.

postu gal ditzake eta erraminta makinaren, forjaren eta mozteko erramintaren sektorean, berriz, 400 lanpostu desagertu daitezke.

"Geralan", esperientzia berritzailea

Gerolan, langabetuak "birkolokatzeko" elkarte publiko-pribatu bat da. Eusko Jaurlaritzak, sindi-

katuek eta inplikaturako enpresek osatzen dute. Hil honen 20an onartuko du Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan, eIkartearen eraketa. Elkarte honek aholkulari batzuk kontratatu ditu eta Jose Ramon Mandiola eibartarra da proiektu honen koordinatzailea *Business Crecition* izeneko enpresa katalui-

niarreko Nicolas Steiberekin batera. Urritik Iturreta eta bederatzi hilebetetan zehar, Elgoibarko IMHn, erraminta makinaren sektoretik kaleratutako langile elgoibartarrentzako irtenbide bat topatzen jardungo du lan talde batek. Lehenago Irungo aduanero eta inguruko soldadore eta altzairuaren

behar dira kontuan"

- Gertatu izan zaigu adibidez, jendeak esango duenaren beldurragatik, langabezian geratu eta errealitatea izkutatzea auzoko eta lagunaren artean, lanean egongo balitz bezala, goizeko 8etan eixetik irteten jarraituz. Arazoa izkutatuz aukera mordo bat gal daitezke.

Aukera horiek errealak al dira?

Irunen gertatutakoa adibide erakusgarria da.

Aduan lan egiten zuen batek, orduz kanpo, kirol arloko hainbat taldeetan lagundu eta koordinazio lanak egiten zituen. Ezagun batek enpresa bat zeukan, baina asko bidaiatu behar zuenez pertsorta arduradun bat nahi zuen enpresa zuzentzeko. Aduanako langilea, kirol taldeekin egiten zuen lanari esker, ezin egokiagoa zen enpresa gizonak nahi



zuen lanerako. Aukera guztiak hartu behar dira kotutan, ez dcrkizulako nondik etorriko zaizun irtenbidea. Tornero batek, formazio piska bat ema-

nez, beste 10 edo 15 ogibide burutu ditzake eta gainera, etxetik irteteko prest badago, aukerak bikoiztu egiten dira.

Ennaitzarik lortu al

sektoreko langileekin burutu du esperientzia hau.

Enplegua sustatzeko sistema "Antena de Empleo"

Erraminta makinaren sektoretik kalera doazen guztiek, jubilatzen direnek salbu, zerbitzu honetaz baliatzeko eskubidea dute, 55 urtetik beherakoak normalean. Bi arlo lantzen ditu proiektu honek: bate-tik, lana topatu eta beste-tik, enpresa edo negozio propioak sortzeko laguntza. "Antena de Empleo" deitzen dutena jartzen da martxan. Honako pauso hauek ematen dira:

-Orientazioa eta formazioa

Ezertan hasi aurretik norberak zer lan egin nahi duen jakin behar du, eta lan hori egiteko bakoitzak behar duen formazioa, esperientzia eta abilezia ikusi. Nahi izatearen eta ahal izatearen artean tarte handia balego, formazioa eskaintzen zaio langileari.

-Proiektu profesionala

Formazioa (beharrezkoa balitz soilik) jaso eta gero, enplegua topatzeko



Lagunetik 89 pertsona joan daitezke kalera. Orain negoziaketa prozesuan daude.

plan bat eratzen da. Horretarako zenbait datu hartzen dira kontutan: enplegu mota, zein sektoretan egon daitekeen lana, lan hori egiten duten inguruko enpresen zerrenda, lana topatzeari pertsona bakoitzak dedikatuko dion denbora,... Era berean, lan elkarrizketetan nola moldatu, harreman pertsonalen bidez sor daitezkeen aukerak aprobetxatu eta abar... irakasten zaie.

Orientazio eta formazio fasea burutu eta gero, hurrengo zortzi hilabeteetan lana bilatu, negozioak sortu eta formazio ikastaroak ematen dira.

-Lan topaketa

Lana topatzea nekettsua izan ohi da, askotan fruiturik ez jasotzeko gainera. Lehenago egindako enpresa zerrenda hartuta, "mailing"ak, telefono kontaktuak, eta bisita pertsonalak egiten dira. Lan

taldeak sortzea oso aproposa da lana topatzeko. Enpresa batera joatean, nor bere burua soilik eskaini beharrean, talde osoa osatzen duten pertsona zerrenda aurkezten dute, hartara non aukeratu dauka enpresariak. Lana taldeka topatzea, modurik eraginkorrena omen da Mandiolaren ustez.

-Negozioak sortuz

Negozioak sortzeko orduan, arrakasta izan dezaketen iharduerak topatzen saiatzen dira. Enpresa batzuek lana eduki ohi dute baina kontratuak egin baino, nahia-cro izaten dute subkontrata-tzea. Edota arrakasta izan dezaketen proiektuak eduki ditzakete eskuartean baina burutzeko modurik ez. Desagertzeaz dauden iharduerak baina oraindik ere etekinik eman dezaketenak ere balio dute. Kasu hauetan, proiektua nor bereganatu eta martxan jarri ohi dute langabetuek. Autoenplegutik sortutako negozioak ere kontutan hartzen dira.

zenuten Irungo kasuan?

- Bai, aduana langileek baino arrakasta gehiago izan zuten Pasaiaiko soldadoreek. Izan ere, langabezian geratu berri ziren eta horregatik aduanako langileek baino lanerako disziplina gogorragoa zuten. Soldadoreen taldeak, taldea osatzen zutenen artean banatzen zuten lana: batzuk egunkarietako lan iragarkiak irakurtzen zituzten, beste

batzuek enpresaz enpresa denen curriculumak bidaltzen zituzten... Taldea osatzen zuten 24tik %91ak hilabete eta rerdiren buruan topatu zuten lana formazioa jaso eta gero. Egunkarien bidez 960 lan

eskaintza topatu genituen eta "antena de empleo"aren bidez, berriz, 200. Betirako kontratuak 5 baino ez ziren izan, beste guztiak kontratu tenporalak ziren, noski.

■ Kontratuak nolakoak dira?

- Tenporalak izaten dira gehienetan. Baina hori "al orden del dia" dago. Gaurregun lan merkatuan ez dira betirako kontratuak egiten. Hala ere, ez da ahaztu behar kontratu tenporal baten atzetik beste bat etor daitekeela. Gipuzkoan iaz 53.000 kontratu egin ziren, gakoa da nolako kontratuak izaten diren.

"Kontratuak tenporalak izaten dira normalean, betirako kontratuak apenas egiten diren"

Zer irtenbide ikusten diozu superpopulazioari?



DORLETA AROZENA
23 urte, ikaslea

Problema hirugarren munduan dauala ematen dau, natalidadian kontrola ein biharko zan. Ideala errekursuak banatzia izango zan baina hori oso zaila da.



NEKANE ETXEBERRIA
36 urte, administraria

Badirudi indiarrak eta beltzak hona etorriko dian beldurrez gaudela. Nik uste dot mundua danona dala ez? Ah! Eta Elizia abortuan kontra egotia gaizki iruditzen jata.



JON GORRITI
27 urte, Gizarte Hezitzailea

Baleike jende asko egotia munduan. Insolidaridade problema bat badao, guk daukaguna baino gutxiokin bizi leike. Zaila da ezer konkretua esatia.



J. RAMON AROZENA
33 urte, abokatua

Bi iritzi kontrajarri daukat. Kontrola ein bihar dala uste dot, baina bestetik hirugarren munduko herrien kulturaren muturrak sartzia iruditzen zait.



ENCARNI FERNANDEZ
53 urte, farmaziako langilea

Eliza bezala, abortoaren kontra nago eta 0,7aren alde. Solidarioagoak izango bagina ez lirateke jaiotze tasa jeisteko neurri gogorak hartu beharko.



JUAN GARATE
47 urte, jostuna

Gutxi dakit honi buruz, baina hirugarren munduan problema dauala ematen dau. Han kontrola jarri biharko

MORKAIKO Mendizale Elkar ea osatzen dugun guztiok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizugu Elgoibarko mendizaletasunaren alde egin duzun guztiagatik, Eta zauden tokian zaudela, ez ahaztu gogoan izango zaituguia.

MORKAIKO M. E.



■ Nafarroa Oinez 94

Igande honetan, hilak 11, Bidasoako Beran burutuko den Nafarroa Oinez 94ra joateko, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak autobusak jarriko ditu. Izena emateko 74 16 26 zenbakira deitu edota Ubitarte 4ra zuzendu. Prezioa 900 ptakoa da bazkide ez direnentzat, eta 600 bazkideentzat.

■ Gazte Asanbladaren zozketako zenbakiak

Gazte Asanbladak abuztuaren 10ean egindako zozketaren zenbaki sarituahonako hau da: 0839. Ordezko zenbakia 0916 da. Urriaren 12tik aurrera biak baliorik gabe geratuko dira.

■ Kale antzerkia AEK euskaltegiaren eskutik

Elgoibarko AEK euskaltegiaren eskutik kale antzerkia burutuko da larunbatean, hilak 17, eguerdiko 12,30etatik aurrera. Ekitaldi hau "Euskaldun izatea merezi du" lemapean, 94-195 matrikulazio kanpainarako AEKk antolatutako ekintzen artean dago.

■ Alderdi Eguna

Elgoibarko EAJ/PNVk autobusa jarriko du hil honen 25ean, Alderdi Egunera joateko. Izena emateko Plaza Handiko Batzokira zuzendu. Irteera Pedro Muguruzako Batzoki parean izango da, goizeko 9,30etan.

111 Elgoibar Saskibaloi Taldearen bilera

Eibarko Saskibaloi Txapelketa hastear dagoenez, Elgoibar Saskibaloi Taldeak txapelketa horretan parte hartzeko jokalarien hautaketa egiteko azken bilera egingo du hil honen 19an, arratsaldeko 8etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Jokatzeko gogoia duten guztiei bilerara agertzeko deia luzatzen zaie.

Haurrertzako XXo perretxiku erakusketa-lehiaketa

Udazkenarekin batera, perretxikuak nonnahi agertzen dira gure mendietan. Sasoi honetan Karakate Mikologia Elkarteak Deba arroko haurrertzako perretxiku erakusketa-lehiaketa antolatu ohi du. Lehiaketan parte hartu nahi duten haur guztiek, prest eduki beharko dituzte perretxikuak hil honen 25eko goizeko 10etarako, kaxetan dotore eta ganoraz aurkeztuta. Plaza Han-

dian jarriko dira perretxikuak ikusgai, bertaratzen den edonork ale arraro bezain pozointsuak ikusteko aukera izango duelarik.

Lehiaketan Deba arroko 15 urtetik beherako edozein haurrek hartu ahal izango du parte. Taldeka eman beharko da izena, gehienez 5 kidekoak. Izena emateko Karakate elkartetik pasatu, hilaren 24ko arratsaldeko 8ak baino lehen.



Beldurrezko zine e analiak Kokoeren eskutik

Kokoe Elkarteak antolatutako beldurrezko jardunaldien barruan, Kultur Etxean hilaren 16tik aurrera izango den komiki erakusketaz gain, pelikulak eta kontzertuak ere izango dira. Inaugurazio eguneko "Oeurrio" cerea de su easa", zikloa osatzen duten lau filmeetatik lehena da. Datonen ostiralean, hilak 23, gaueko 10,15etan hasita, beldurrezko bi filme eskainiko dira Herriko Antzokian. "Brain dead" eta "La noeche de los muertos vivientes" dira filme beldurgarri hauen izenburuak. Atsele-naldian, "6NEMEN9" musika talde

elgoibartarraren saioa izango da. Beldurrezko generoari eskainitako omenalditxo honi amaiera emango dio hil honen 30ean "La semilla del diablo" pelikulak. Pelikula guztietarako sarreraren zenbatekoa 200 ptakoa izango da. Programazto bannan, Kultur Etxean, gaueko 10,15etan, honako pelikulak emango dira bideo formatoan: Hilaren 22an "EL Cabo del terrore", 28an "El baile de los vatnpiros" eta "El cazador de vampiros" eta 29an "La mosca". Programaziotik kanpo ere, emango da filmirik.

Cestlo Eskolak hasi du 94/95 okasturtea



Joan berri den ostegun honetan eman zion hasera ofiziala Gestio Eskolak 94/95 ikasturteari, eskola sortu zenetik bigarrena. Arratsaldeko 6etan hasi zen ekitaldia, lehen eta bigarren kurtsoko ikasleen parte hartzearekin. Mahaiaz bestalde zeuden, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkateta, Jose Mari Ulazia Gestio Eskolako zuzendaria, Patrick Coustenoble SUP'TG Eskola Sarearen Koordinatzaile Nagusia, Jose Maria Ormaetxea Mondragon Kooperatiben bazkide fundatzailea eta, Iñaki Arriola Gestio Eskolako Fundazioeko presidentea.

■ Lanbide Heziketarako ikastaroak

Durangoko Prestakuntza eta Lanbiderako Bulegoak, heziketa okupazionalerako ikastaroak antolatu ditu, irailetik urtarrilera bitartean. Ikastaroak aluminio aroztegia, rnerkataritza auxiliarra, geriatría auxiliarra eta etxez-etxeke laguntzari buruzkoak izango dira. Informazio gehiagorako edo izena emateko zenbaki hauetara deitu: (94) 620 04 49/620 00 49. Plazak murriztuak dira.

Jose Mari Ormaetxeak "Gestioaren Kalitatea"ri buruz jardun zuen inaugurazioko hitzaldian. Ormaetxea, "Mondragon Corporación Cooperativa"ren (MCC) fundatzailetariko bat da, Ulgor lantegien sortzaile, MCCko gerentea izan da eta Caja Laboral Popular-eko Zuzendari Nagusia ere bai, beste kargu askoren artean. Ponentzia mordoa idatzi ditu, tartean "La experiencia Cooperativa de Mondragon" liburua. Ekitaldiari, Iñaki Arriola Fundazioko presidentearen hitzek eman zioten amaiera.

■ Deba Beheko gida, doan eskuragai

Deba Behea osatzen duten **zortzi** herriei buruzko gida dohainik banatuko da Altzola Dorreko Kultur Zerbitzuan. Liburuxka honek herri bakoitzeko leku eta txoko ezberdinak jasotzen ditu, aisialdi eta turismo aldetik dituzten baliabideak erakutsiz. Gida hau DEBEGESA erakundeak, Deba Beheko Garapen Sozioekonomikorako Erakundeak, argitaratu du.

• Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak, kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian hil honen 18an, eguerdiko 12,30etan, ohizko kalejira burutu eta gero. Kontzertuan zehar minutu bateko isilunea gordeko da hil berri diren Jose Angel Zubiaurre, Rafael Barrenetxea eta Juana Iriarteren oroimenez. Joko dituzten piezak honako hauek dira: "El Ultimo Romantico", "Fra Diavolo", "Danzas Hungaras", "La Gran Via" eta "The Exodus Song". Hurrengo kontzertua Errosario kaleko jaietan eskainiko dute, urriaren 9an hain zuzen.

• Klinika laguntzaile ikastaroa mekanikan

Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sailaren dirutaz lagunduta, Klinika Laguntzaile ikastaroa antolatu du. Ikastaroa dohainikoa izango da eta 25 eta 45 urte bitarteko emakumeei zuzendua dago. Baldintza bakarra gutxienez urtebete INEMen apuntatua egotea da. Ikastaro hau ezezik, beste hainbat ikastaro ere antolatu ditu Lanbide Eskolak bigarren seihilabeterako, hala nola, automozioa, informatika, marketing-a,... Informaziorako 74 44 80/85 zenbakietara deitu.

• Enkoadernazio ikastaroa

Andraize Emakume Taldeak enkoadernazio teknika ezberdiniei buruzko ikastaroa antolatu du. Emakumeei zuzendua dago, bereziki langabetuei. Eskuzko enkoadernaketan dauden josteko era ezberdinak, dekoratzeko moduak irakatsiko dira. Urriaren 3an hasita, zazpi astez luzatuko da. Izena emateko lehen bait lehen deitu 75 51 OIra, plazak murriztuak baitira (12 pertsona). Ikastaroa doan izango da baina materialea norberak ordaindu beharko du (2.000 pta.).

Borja Movellan:

"Dauzkagun ondasun kulturalak ez ditugu baloratzen"

27 urteko elgoibartar hau kasualitatez sartu zen altzarien munduan bai eta antropologian ere. Altzarigintza da bere ogibidea eta Eusko Ikaskuntzan ere badago, Gipuzkoako ermitei buruzko lan bat egiten libre geratzen

zaizkion orduetan. Berak dioenez, "gauza asko ez ditugu nagikeriagatik egiten", baina egunak ordu gehiago.* balitu, auskalo zertan arituko zen burubelarri gazte hau, jakin nahiak eta izakera sutuak bultzaturik!

- Oso gazte sartu zinen diseinu munduan, ez?

Bai, kasualitatez sartu nintzen orain dela bost urte. Marrazki linealean ona nintzen eta, dekorazioan ibili ondoren, lagun batek "Etxetxo" dendarako zerbait egitea eskaini zidan. Poliki-poliki negozioan sartu nintzen buru-belarri eta hemen nago orain, sukaldeak, arnairuak, atek eta leihoak diseinatzen.

- Sormena asko erabiltzen al da lanbide honetan?

- Segun. Errealitatean, bezeroak ondo adierazten dizu zer nahi duen. Nik egin behar dudan gauza bakarra bere etxera joan eta neurriak hartzea da. Oso gutxi etortzen dira "zerbait egitea nahi dut baina ez dakit zer. Ideiarik ba al daukazu?" esaten. Halere, Ian horiek dira benetan gustatzen zaizkidanak.

- Zer harreman duzu Koldo Lizarralde etno-grafoarekin?

- Oso laguna izateaz gain, beragatik nago orain ermiten gaian sartua. Koldok eskatu zidan Gipuzkoako ermitei buruzko proiektuan kolaborazio batzuk egitea.

- Zer kolaborazio?



"Kuriositateak astintzen zaitu eta gehiago sartzten zara horrelako azterketetan".

Ni planuez arduratzen naiz eta horretarako argazki mordo bat atera behar ditut eliza ezberdinetan. Koldo Lizarralde eta Antxon Agirre donostiarra arduratzen dira dokumentazio historikoaz. Hala ere, mundu honetan sartzten zarenean, Eusko Ikaskuntzak gidatzen dituen lanetan alegia, kuriositateak astintzen zaitu eta gero eta gehiago sartzten zara.

- Adibidez?

- Beno, estelak eta horrelakoetan. Arki tektura asko interesatzen zait bai

eta errota zein bideak ere. Pena daukat gai hauek aztertzeke nahi beste denbora ez daukadalako.

Aipatutako ermitei buruzko lan hori noizko espero duzue amaitzea?

- Ez dakit. Obratxo bat nahi genuen baina azkenean ez dakit enziklopedia bat ez ote zaigun aterako. Seirehun ermita inguru daude Gipuzkoan eta, horrez gain, nik erabilitako planuak eskala txikiak dira. Nahiz eta oso zaila den detaileak ondo ikustea, beharrezkoak dira.

- Elgoibarren zer moduz gaude aintzinako erai-kuntzei dagokionean?

- Gauza interesgarriak daude. Denek ezagutzen ditugun horietaz gain, hau da, Eliza, Udaletxe inguru eta Kanposantuko sarrera, hor dago, adibidez, Apraizko errota.

- Zer deritzozu elizan hasi behar dituzten obretaz?

- Oso ondo. Gure uauzak zaindu egin behar ditugu. Ez nago ados eliza apaizena bakarrik dela uste duten horiekin. Eliza elgoibartar guztiona da, herriko gauza bat da eta zaindu egin behar dugu. Niretzako balore berdina dute San Pedroko elizak eta Elgoibarko edozein etxe zaharrek. Nahiz eta lehenengoa ondasun kultural handiagokoa izan, bestea arte herrikoa da eta kontuan izan behar da. Askotan ez ditugu baloratzen.

- Elkarrizketa hau erdaraz egin dugu, noizko euskaraz?

- Nire "asignatura pendientea" da. Urteak daramatzat ikasten baina... Gainera orain Eusko Ikaskuntzan sartuta egotean "palo" gehiago einaten dit.

MYRIAM ALDAZABAL


Txiki BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 6. GEHIGARRIA



raila izan ohi da itzuleraren hilabetea. Oporretatik buelta, lanera berriro ere, ikasturte berriaren hasera... Eskolan hasteak esanahi desberdina dauka umeentzat. Batzuek lagunak aspaldiko partez ikusteko ilusioa izaten dute, opor luzeen egun aspergarriak somatzen hasten dira irailean eta gurasoek ezezik, ume hauek ere, ohizko "errutinari" heltzeko "gogoa" izaten dute. Baina, badira, eskolako lehen egun hau bestelako errespeto batez hartzen clutenak, penaz. **Bi** urteko haur txikiak dira. Sekula amaren magaletik banatu ez diren txikitxoak, derrepentean, haur ezezagunen artean, eta gurasoen presentziatik at, aurkitzen dira. Egunak, asteak pasa artean, hauen negarrak nabarmentzen dira hartzaindegian. Umeak inguru ezezagun horretan eroso sentitzen diren arte. Herri Eskolakoekin izan ginen euren lehen egunean eta txintxo-txintxo portatu ziren gure kamarak beraien pausuak jarraitzen zituen bitartean.

txistea



Jakitunen eskutik

Partikularrak

Azkenik heldu da guraso asko itxaroten egon den garaia, alegia, neska mutilak eskolara bidaltzeko eguna. Ikasleentzat, ordea, oraintxe hasten da aldapa. Berrero ere klaseak, etxeko lanak, eta batez ere, frogak egin eta gainditu beharko dituzte.

Ikasle gehienek ez dute gehiegizko zailtasunik izaten, OHOkoak behinik behin, kurtsoa gainditu eta hurrengora pasatzeko, eskolatik kanpoko laguntza berezirik gabe. Baina beti dago talderen bat, bere mailako trebezia eta edukiak menderatzera iristen ez dena edo zailtasun askorekin iristen dena, arrazoi asko direla medio. Eskolaren eginkizuna litzateke, beraz, ikasle hauei beren aurrerapenerako behar dituzten tresnak eta atentzio berezia eskaintzea.

Zoritxarrez, gaur e.gun indarrean dagoen heziketa sistemak oztopatu egiten dio irakasleari banakako atentzioa eta heziketa personalizatu bat eskaintzea. Egoera honek bultzaturik, zailtasunak dituzten ikasleen guraso batzuk, "partikularra" bidaltzen dituzte beraien seme-alabak, talde txikietan edo bakarka eduki dezaten eskolak eskaini ezin dien heziketa personalizatu. Tutore eta partikularreko irakasleak amakomunean

egin beharko dute lan, noski, ahalik eta etekin onena lortzeko.

Beste guraso batzuk ordea, arazo desberdinengatik, tareak egin eta zalantzak argitzera bidaltzen dituzte, ikasleek zuzendu ordez. Guraso hauek kontuan hartu beharko lukete, ikaslearen hezkuntz prozesuan, lan autonomia eta erresposabilitatea lantzeak duen garrantzia.

Bada azkenik, beste talde bat, egungo gizarte konpkitibo honek bultzaturik, seme-alaba ahalik eta klase gehienetarra bidaltzen duena; ingelesa, informatika, solfeoa, instrumentuak jotzera eta abar luze batera. Ondorioz, ume askok ez du jolas egiteko denbora nahikoa, haurtzaro estresatu xamarra bizi dutelarik.

Hau honela izanik, ezarri berri den irakaskuntzaren erreforman, kontuan hartuko dira ikasle bakoitzaren kapzitatea eta lan erritmoa, eta horien arabera, era bateko edo besteko lanak proposatuko zaizkio. Oraingoa baino personalizatuagoa izango den heziketa baterantz goazela dirudi. Baina hau benetako errealitate bat izan dadin, Adiministrazioaren, irakasleen eta gurasoen partaidetza eta kontribuzioa beharrezkoak dira.



LOURDES ARRIETA

Ze irazi daukazu

.....ri buruz?



04t tviAkk

14,11 cokr ji,(44,1" .6toletalw, le.u) jpAza" jx&Ple"

ilta.eta.ka

4cea"

ta/ha/li a4O1. oo, 4'44eictke.

MIKEL DE PABLO CID. 8 urte




11f14€144,1 bicla 4f3v

c14. 2,AoU2 *attetulto 1{4ue.

4,11£4: umitolm,1,k lale 4~4 1014P4

TANIA GUTIERREZ. 10 urte.



Nevity4 mkota, v443 1,a~a. La/Hp, a4k

miiv.401% 4C4t4e

/(4.im,e44, 020 vrh,1

EDUARDO ETXEBERRIA. 12 urte



Icloia Oiarzabal

14 urte

1. Amak aitak baino jenixo gehixao daka eta beti dago agintzen. Halere batzuetan amak gehixo defenditzen dia, segun ze gauzetan.
2. Barregurazkoren bat.
3. Agintzea gustatzen jata baina ez dot aguantatzen besteen aginduak jasotzea.
4. Lagun onak izateko edo.
5. Gaua, gurasuak ez dabiz kalia eta libro zabiz.
6. Ez, hori fantasia hutsa da.
7. "El juego de la oca". Parte hartuko naban sugiekin eta arratoiekin ibiltzeko.
8. Ez dao ezer berezirik, gau normala da.

valae aepa ae

- 1.. Zer du zure amak aitak ez duena? Eta aiderantziz?
- 2.. Marrazki bizidunefako zein pertsonaia izan nahi zenuke?
- 3.. Zerk haserretzen zaitu?
- 4.- Mutilek/Neskek balio dute...
- 5.- Zer nahiago, eguna ala gaua?
- 6.- Sorginak existitzen al dira?
- 7.- Gustuko duzun telebistako saio bat?
- 8.. Ilargi betea dagoen gauetan...



Iker ArrillaMa

7 urte

1. Nere amak belarritxakuak dakaz. Nere aitxak begi urdinak dakaz eta amak ez.
2. Super Mario Bros.
3. Nere anaia txikiak ez egitea kasorik.
4. Jartaria egiteko.
5. Gaua, ilargia dagoelako.
6. Ez, ipuinetako gauzak dia.
7. Indio eta bakeroen pelikulak.
8. Ezer, "hombre-lobo" ok ez dia existitzen.

Zer da dee4~43- ?

LIDULVES ILLISANIDEZ 10 urte




Denbora tontakeria bat iruditzen zait, beti korrika leku batetik bestera joateko, presaka eta presaka.

LYDIA SCIC 11 urte



Neretzat denbora jolasteko da, josteko, dutxatzeko, irakurtzeko... Era guztietako gauzak egiteko.

ISIGO IIDAZAllt13EITIA S urte



Denborarekin batzuetan aspertu egiten zara eta azkar pasatzea nahi duzu. Ondo pasatzen zaudenean, denbora polikiago nahi duzu joatea.

Jelst CLAIZCIA 12 urte



Andereñoak esaten duen bezala denbora, lana zati potentzia da.

A11LEVA GARCIA 8 urte



Minutuak markatzen dituen gauza bat da denbora. Orduak asko tardatzen du.

ISIMEAK 13ASTIVA 13 urte



Bizitza honetan aprobetxatu behar dena.

Denborapasak: ezetz asmatu!

Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?




NURIA PEREZ
13 urte

"Gauza ez hain zailak eta dibertigarriagoak egingo nituzke.

Jendearen partaidetza bultzatuko nuke, joku didaktikoak sartuko nituzke eta ez denbora guztian kriston roiloa bota. Seriotasuna noizean behin ondo dago, batzuetan behar da, baina umorea ere komenigarria da."

IMANOL ETXEBERRIA
8 urte

"Bateronbat gaizki portatuko balitz kalera bialduko naban. Inglesa ikasteko jolasak egingo genitxun, hitzegin... Nik nahiko naban Ianak eib<eko orduan jolostia eta jolasteko orduan lanak eitxia, ordu erdixan tareia ein eta beste ordu guztiak jolasteko."





3. Asmakizunak:

- Mahaira atera ohi dira, ez dira jaten ez edaten, bai ordea ebaki eta banatzen. Zertaz ari gara?
Zer da?
- Aldizka-aldizka orriz-orri dute biluzten, urtearen amaierarako ez diote bat ere uzten.
Zer da?
- Txaleko zuriz eta frak beltzez jantzia, hegarik egiten ez duen itsasoko hegaztia
Zer da?

4.

Goiko marrazkian lauki bat falta da. Zein?



Junkal Arriola

Supermerkatuko langilea



- Umetan jolasten al zenuen dendetan?, Bai, askotan. Ni beti izaten nitzan saltzailia, edozein dendatako salizailia.
- Zein da gutxien gustatzen zaizun txanpona?, Hamar pezetakuak, txikixak dia eta ez dozu igartzen ze nnoneda dan, nahasteko bakarrik balio dabe.
- Ondo administratzen al duzu zure dirua? **1** Nik usten dot baietz, dendan ikasitxakuak norberantzat ere balixo dau.
- Dirua, aurrezteko ala gastatzeko? **1** Kapritxo batzuk permititxu arren nik normalian dirua aurreztu itxen dot.
- Loteria tokatuko balitzaizu? **1** Lehenengo biajiak ingo nitxuzke, hor zihar ibiliko nitzan eta gero... ez dakitx, pentsatuko naban.
- Piropoak esaten al dizikizute bezeroek? **1** Ez, normalean ez, asko jota "bonita" edo bateron batek.
- Zein pelikulatoko protagonista izan nahi zenuke? "Robin Hood"eko neska.
- Eta zein aktorekin joango zinateke afaltzera? **1** Kevin Costner-ekin, dudaripe.
- Daukazun ohitura txar bat? "Prontua, mala letxia", erreazio hori kontrolatzia nahiko naban.
- TBko zein leibaketatan hartuko zenuke parte? **1** Ez naiz oso zalia baina aukeratzekotan, "La ruleta de la fortuna"Th.
- Eta nora ez zinateke sekula juango? **D** "El juego de la oca"ra.
- Maitasun adierazpenak zein hizkuntzatan dira politenak? Norberak ulertzen daban.hizkuntzan.
- Gustuko ez duzun kolore bat? **1** Beltza, nahixao ditzut kolore bizixak.
- Eta zorrea ematen dizun zenbaki bat? **1** Bosta.
- Nola ikusten duzu zure burua hogeit urte barru?, Familixa batekin, umiekin, nere etxian... Lan asuntua da ikusten ez doten bakarra.
- Noren etxeko leihotik begiratuko zenuke gustura? **1** Famoso eta aberatsen etxeetako leihotik. Euren benetako bizitza nolakua dan ikusteko.
- Lanean izan duzun anekdotaren bat? **1** Oin dala gutxi gizon bat etorri jatan "bizitza ematen daben gailetak" saltzen ditzugun galdetzen, berak nunbaitxen entzun zabala eta.

SUPERPOPULAZIOn

DOINUA:

Arnodioa gauza tristea

Ipini gara azken aldian

El Cairorantza begira
biztanleria dela rmedio
hika mikan ari dira.

Batikanoa gora ta behera
makina bat jira bira
errudunetan errudunenak
Katolikoak bailira.
Zergatik ez du begiratuko
norberak bere herrira?

Arazoari aurre hartu,
hau da denon desioa.

Aipatu dira umegaltzea
irten da abstenzioa
gero norberak egin dezala
beraren elezioa.

Senda liteken gaitz itsusi bat
da superpoblazioa
norbait errudun izendatzea -
ez dugu soluzioa.



IRATI AGIRREAZALDEGI

=y -

-EGA, ALFA **eta maila guztiak**

:-1'5, 2 eta 3 orduko klaseak

-Langabetuentzat beka sistema



aek

Plaza txikia 3,
Tel. 74 13 32
Euskaltea

e Fatxadak	
• Komunitateak	
• Mota guztietako lanak	
San Roke 30 behea Tel. 74 36 52	

1:1 o El O A

Ehiza Txapeiketa San Migelen

La Unionek San Migelen burutuko den ehiza txapelketa antolatu du bazkide eta herritarrentzat. Hil honen 24an, Iarunbata, izango da txapelketa. Faisaiak kalitate handikoak izango dira, horregatik partehartzaile bakoitzari epaile bana eraman dezan eskatzen zaio. Izen-ematearen zenbatekoa 2.500 ptakoa izango da bazkideentzat, eta 3.000 ptakoa bazkide ez direnentzat. Izena emateko Gargarza erlojudendara zuzendu.

Besaidera irteera

Igande honetan, hilak 18, egun berezia ospatuko da mendizaleen oroimenez, Besaiden. Morkaiko Mendizale Elkarteak irteera antolatu du egun horretarako. Goizeko 8etan izango da irteera Plaza Handitik, mendi tontor batera igoera egin eta gero, Besaidera iristeko. Itzulera bazkal ordurako egingo da.

Kirol jaialdia Olaizagan

Ibai Gimnasioak 200 bat kirolari bilduko ditu hilaren 24an, larunbata, Olaizaga kiroldegian burutuko den kirol jaialdian. Bi ordutan zehar judoa, gimnasia erritmikoa, aerobica, takewondoa, Jiu-Jitsu-a eta bestelako kirolak ikusteko aukera izango da. Aerobic erakustaldian, Hondarretako hondatzen kirol hau irakasten jardun duten monitorea izango dira. Gimnasia erritmikoan Espainiako txapeldun ordeak arituko dira, Takewondoa Elgoibar eta Donostiako kirolariak eta Judo eta Jiu-Jitsuan herriko kirolaririk onenak. Sarrera doan izango da.

Tomas Olmo:

"Jendea edozein kirol egitera animatzen da"

Nola hasi zinen tenisarekin?

,har denez eta Gasteizen tenisa zegoenez, hori aukeratu nuen. Praktika moduan Diputazioaren udako kanpainan hasi nintzen. Lehenago Klub Deportiboan egon nintzen 6 urtez, eta judoa ere egin izan dut.

1 Zaletasunik ba al zegoen?

Haseran 30 pertsona apuntatu ziren eta San Antolinen plastikozko baldosazko pista batean hasi ginen. Pista desastre bat zen baina jendearen erantzuna oso ona. Zaletasun handia dago, kontutan hartuz euria egiten duenean pista sikatu egin behar dela, eta tenisean jokatzeko bi hilabete baino ez ditugula.

1 Pista nola eraiki zen? - IMHko proiektuan bi pista eraikitze asmoa zegoen baina amaitzean ez zituzten eraiki. Horrela, 300 sinadura jaso genituen eta Udaletxean aurkeztu. Duela bi hiru urte pista eraiki zuten. Gaurregun duen arazoetariko bat, jendeak gutxi zaintzen duela da. Ondo legoke alogera bertan jartzea pertsona batek zaintzeko.

1 Eta zaletasuna goraka. - 91ko udan, 90 pertsona eduki genituen eta lanean egon nintzen azken kanpainan, 92koan, 8 eta 50 urte bitarteko 130 pertsona izan genituen. Ni orain Bartzelonan nago lanean eta jende nagusia, emakumeak



batez ere, ez dira hainbeste animatzen. Hemen izugarrizko giro ona sortu zen.

1 Bartzelonan ere, tenisetik hurbil zabiltza, ez? - Bai, hezkuntza fisikoko irakaslea naiz Lanbide Heziketako eskola batean, eta orduz kanpo tenis klaseak ematen ditut. Datorren urtean udako kanpainan tenis klaseak ematera etorriko naiz.

1 Zergatik izan du tenisa horrelako "boom" a? - Ikastaroetan jendeak oso ondo pasatzen du, eta kirol arloan jendea edozein ihardueratan parte hartzera animatzen da. Adibidez, Gabonetako kuadrila arteko txapelketa.

1 Kirol asko egiten al da Elgoibarren? - Bai. Lehen futbola bakarririk zegoen ganoraz antolatuta. Atletismoa ere bazegoen baina ikusten ari naizen gauza bat zera da: Ramon Mujikak izugarrizko lan ona, oso

profesionala egin duela kirol arloan. Udako kanpainari esker kirola oso merke egin daiteke. Eskubaloia ere hor dago, goraka etengabe... eta tenisean ere eskola bat egiteko aukera hor dago.

• Adina: 26.


- Zaletasunak: Kirola eta musika.
- Tenisiari faborittoa? Sergi Bruguera.
- Tenisean jokatu ala irakatsi? Biak. Agian, irakatsi.

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

oboy NA

04'''

Santa Klara -22
TS 74 2 6 32



Folero
OKINDEGIII
OPILEDGIR

San Frantzisko, 4
74 07 35

0.61ALK

KAFETEGIA
74 42 65

Bost ekipo izango ditu aurten Eskualdeko 'aldeaK

laz baino bi talde gehiago izango ditu aurtengo denboraldian C.D. Eskubaloi Taldeak, bost guztira. Urriaren lein jokatuko dute 94/95 denboraldiari dagokion lehen partidua. frailean zehar, berriz, aurrendenboraldiko "Elgoibar Hiria" hiru taideren arteko txapelketa jokatzen dihardute.

railaren 10ean hasi zen "Elgoibar Hiria III. Eskubaloi txapelketa". Joan den astebukaeran **11** nesken senior taldeak jokatuzuen, partidu bat berdindu eta beste bat galdu zutelarik. Larunbat honetan senior mutilen txanda izango da eta igandean, berriz, jubenilena. Kadetei urriaren lein jokatzea zegokien, baina ligako partiduak hasten direnez, ez dute txapelketa jokatuko.

Denboraldira begira, emaitzak onak izatea espero dute klubeko arduradunak. Hiru mailatan, kadetan, jubeniletan eta seniorretan, jokatuko dute eskubaloi taldekoek. Maila bakoitzean, jubeniletan ezik, emakumezkoen eta gizonezkoen taldea dago, guztira, iaz baino bi talde gehiago. Dena den, aurrera begira,



• Hauek dira seniorren mutil taldea osatzen duten jokalariaik.

jubenil mailan nesken taldea edukitzea izango litzateke asmoa. Horretarako baina, bi urte pasa beharko dira seguruenez, kadete mailako neskak kategoriaz igo arte, alegia. Entrenatzaileak honako hauek dira: Joxean Hidalgo, Erkuden Idiakez, Jose Peñaranda, Ales Arrieta eta Patxi Aranberri.

Arazo ekonomikoak

C.D. Eskubaloi Taldea haunditzen joan da urterik urte. Bost talde dira eta 80 jokalaria. Aurten, Joxean Hidalgok hartu du zuzendaritzaren ardura, eta ardura horien artean ere izango du buruhausterik. Hasteko, aurrekontua iazkoaren bikoitza izan-

go da, bi milioi pezetakoa. Aurten beraz, esfortzu berezia egin beharko dute kirol arloan ezezik, arlo ekonomikoan ere bai.

Senior mutilen taldea

Aurtengo denboraldiko berrikuntzarik nabarmenena senior mailako mutilen taldea da. Iazko jubenil taldeko jokalariez gain, Patxi Aranberri, Eduardo Fidalgo eibartarra, Iñigo Astigarraga, Iñigo Arriola eta Migel Angel Arozena beteranoek jokatuko dute. Patxi Aranbarri entrenatzailearen nahia mailaz igotzea litzateke. "Nere ustez, igotzeko moduan egon gaitzke, maila bajuean jokatzen hasi gara eta".

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 17

12,15: Urki - Kilimon (2. errejionala)

17,00: Haundi - Urola

Igandea 10

11,45: Urko - Anaitasuna (jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian

"Elgoibar Hiria III. Eskubaloi Txapelketa"

Larunbata 17

16,00-17,00-18,00: Elgoibar - Akondia- Urola (Senior mutilak)

Igandea 18

10,30-11,30-12,30: Elgoibar Urola Bergara (Jubenilak)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian Ostirala 16

22,00: Elgoibar F.S. - Astillero (2. maila)

23,00: Elgoibar F.S. - Car. Jauregi (I. maila)

rin - enn

ESKUBALOIA

"Elgoibar Hiria III. Eskubaloi Txapelketa"

(Senior neskak)

Arrate 8 Elgoibar 6

Jauja 7 - Elgoibar 7

Jauja 13 - Arrate 11

FUTBOLA

Alaves Af.2 - Haundi 0

Elgoibar 2- Lagun Onak 3 (Neskak)

SISFLE,

Kalitatezko mekanizatueta, enpresa liderra

Aeronautika, optika, telekomunikazioak, elektromedizina.. exijentzia handiko sektoreen osagai-horniketan zegoen hutsunea ikusita, eta beti ere kalitatea helburu zutela, mekanizatueta arloan materiale "exotikoak" (aluminioa, magnesio eta titanio aleazioak, altzairu aeronautikoak...) lantzeko sortu zen Sisle. Euskal Herriko mekanizatueta artean guztiz berritzailea da Olaso-ko industrialdean kokatutako enpresa hau. Ez Elgoibarren, ez Euskal Herrian, ez eta Estatu osoan ere, ez dago Sisle enpresa modurik. Guzti honi faktore demografikoa lotuz gero, hau da, merkatu frantsesa hor bertan dagoela kontuan hartuta, arrakastarako aukerak handiak zirela ikusi zuten.

Helburu bakar batekin egiten dute lan Sislak: beraien produktuetan kalitatea eskaintzea. Sislak mekanizatueta diren pieza guztiak erabateko garrantiaz saltzen zaizkio bezeroari. Kalitate kontrol zorrotza egiten da pieza bat merkaturatu aurretik. Arlo honetan Sislaren mekanizatueta homologatuta daude eta kalitate maila honi esker, punta puntako enpresak bere bezero izatea lortu du.

Sislak lantzen diren produktuen artean, kopuru garrantzitsu bat Estatutik kanpo saltzen da. Frantzian bezero garrantzitsuak ditu, hain zuzen informatika eta elektromedizina sektoreetakoak. Gainontzeko bezeroak Estatuan zehar sakabaturik daude, bai Euskal Herrian, baita Euskal Herriatik kanpo



• Eskuman, Eduardo Perez bere lan taldeaz inguratuta. Behean, "Artemis" sateliterako titaniozka piezok.



ere. Hornitzaileak, berriz, gehienak behintzat, Euskal Herrikoak dira.

Sisle enpresako lan taldea, jende gazte ugari osatzen du. Hala ere, esperientziadun pertsonak dira. Gehienak formazio teknikoa jasotakoak dira, burutzen duten lanerako bereziki prestatuak.

Krisiaren eragina

Krisia zuzenean sufritu ez badute ere, haren eragina igarri dute. Izan ere, duela urte batzuek enpresaren anpliazioa egitekotan zebiltzan. Krisia zela eta, atzeratu egin behar izan zuten proiektua. Gaur egun, badirudi berriz ere proiektua gauzatzeko moduan daudela. Asmoa lantegiaren aukerak ugaltzea litzateke hiru urtetan zehar. 300 milioi inguru inbertituko lirake, langile kopurua ere bikoiztu egin- goko litzatekeelarik.

EINNE PIIIFtESAIREINI . FETXA

- × IZENA: SISFLE, S.A.
- × SORRERA URTEA: 1989
- × SORTZAILEAK: Gaindu S.A., Eduardo Perez Junquera eta beste batzuk,
ZUZENDA1RI-GERENTEA-KOMERTZIA1A: Eduardo Perez.
- × FABRIKATZEN DUTEN PRODUKTUA: Kalitate altua eskatzen duten sektoreei zuzendutako preziozko pieza rnekanikoak.
- × LANGILE KOPURUA: 14
- it URTEKO FAKTURAZIOA: 200 milioi.
- × ESPORTAZIOAK %tan: % 40a
- × HELESIDEk. Otsa Kafea 45, Olaso-ko industrialdea
- × TELEFONOA: 74 39 06 × FAXA: 74 35 01


Bukatu da aire libreko zinea

railaren 10ean eskainitako "Baraka" filmearekin bukatu du Ongarrik aurten-go aire libreko zinea. Guztira 17 emankizun egon dira, programatuta zeudenak baino 2 gehiago. Azken egunetako tenperatura freskoak argi laga du bukatu dela Plazan pelikulak ikusteko sasoa.

Ostiral honetatik aurrera, Herriko Antzokiko aretoak hartuko du Plaza Handiko aire libreko zinearen errelebu. Hilaren 16an, Kokoek antolatutako beldurrezko jardunaldien barruan, "OcurriO cerca de su casa" filmea eskainiko da gaueko 10,15etan. Larunbateko emanaldiak arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan izango dira eta filmearen izena. "Speed".

ren emankizunearn "Sister Act II" pelikula eskainiko da. Arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan "Speed" filmea emango da. Astelehenean pelikula errepikatuko da gaueko 10,15etan. Haurrentzako zinearen prezioa 200 ptakoa da eta gainontzekoena 350 pta. Asteartea ikusleari eskainitako eguna izango da. Sarrera merkeagoa, 200 ptakoa izango da, eta emango den pelikula haurrentzako programatutakoa izango da. Datorren asteartean, hilak 20, "Sister Act II" filmea emango da.

Hurrengo astean "Cuatro mujeres y un destino" emango da nagusien emankizunetarako, eta "Mi padre. que ligue" haurren emankizun eta ikuslearen egunerako.



**ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA**

ELGOIBAR

111 •

ETENGABEKO FORMAZIO ETA ERREZIKLAIA PROGRAMA

Egitasmo honen baitan, teknikarien kualifikazio maila hobetu nahian, I.M.H.k 1994. urteko 2. sei hilabetetarako jarraian aipatzen diren kurtsoak jarriko ditu martxan:

	HASIERA DATA	IRAUPENA	HASIERA DATA	IRAUPENA
■ PC Microestazioa (2D eta 3D)	(94. 09. 12)	60	11 Informatika ekipoen instalakuntza eta mantenua .(94. 10. 17)	36
■ Ordenagailuz Egindako Diseinua:				
Autocad V. 12	(94. 09. 26)	80		
■ Plano eta taldeen irakurketa. Oinarritzko maila	(94. 10. 10)	60		
■ Proiektuen aurkezpenarako Industri Diseinua	(94. 10. 24)	40		
e AUTOCAD V.12 Maila aurreratua.				
Solidoen sorkuntza	(94. 11. 07)	40		
■ Makinen Osagaien Kalkulu eta diseinua	(94. 11. 07)	60		
■ MODELVIEW: Ordenagailuz aurkeztutako proiektuak .(94. 11. 21)		40		
■ Plano eta taldeen irakurketa. Maila aurreratua	(94. 11. 21)	50		
111 CAD: Dibujo Bariatziala eta Asoziatiboa	(94. 11. 28)	40		
PRODLiCiejd				
■ CIM sistemetarako sarrera	(94 .10. 10)	18		
■ CNC tomoen programazioa eta erabilera	(94 .10. 10)	70		
■ Fresadora eta mekanizatu zentroen programazioa eta erabilera (I. maila)	(94 .10. 10)	70		
111 CAM (Ordenagailuz Egindako Fabrikazioa)	(94. 10. 24)	60		
■ Fresadora eta C,N.C. Mekanizatu zentruen erabilera-programazioa. (II. maila)	(94. 11. 14)	70		
11 C.N.C. tomoen erabilera eta programazioa				
11 maila	(94. 11. 14)	70		
11 Ordenagailuz Egindako Proiektuen Gestioa	(94. 10. 24)	20		
			TO 11./1 ATIICA	
■ Mekanikoentzako Elektronika Industriala	(94 .09. 19)	50		
■ Mekanikoentzako Elektrizitate Industriala	(94 .09. 26)	40		
■ Mekanikoentzako Automatismo elektriko-elektronikoak	(94 .10. 10)	40		
■ Automatismo Elektrikoak	(94 .10. 17)	50		
■ Sistima Hidraulikoaren Muntaiak eta Mantenua	(94 .11. 07)	30		
111 Neumatika	(94 .11. 17)	50		
■ Zirkuitu neumatikoaren muntaiak eta mantenua	(94 .11. 21)	40		
• Automoziorako hidraulika	(94 .12. 05)	30		

ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA

Te1.74 41 32 Fax.73 41 53.

San Roke Auzoa 1 ELGOIBAR

.delimieet44

Komikiklub-eko I KOMIKI LEHIAKETA. Bi maila daude, 14-18 bitartekoa bata eta 18 urtetik gorakoa bestea. Gutxienez orri bat eta gehienez lau orrikoak, zuri beltzean marraztuak, 21x30 neurrikoak eta gazteleraz zein euskeraz. Lanak lema batekin aurkeztu behar dira eta sobre itxi batean, lemarekin batera, egilearen datuak. Saritutako lan guztiak Komikiklub aldizkarian argitaratuko dira. Lanak honako helbide honetara bidali behar dira: Komikiklub lehiaketa, Pinondo efexa, Durango, Bizkaia. Azken eguna urriaren 10a da.

PINTURA LEHIAKETA kalean antolatu du Debako Udalak. Irailaren 1 8an egingo da. Nahi dutenek har dezakete parte. Gaia eta teknika libreak. Euskarriari goizeko 9.00etatik 11.00etara bitartean larriko zaizkie zigiluak udaletxean, eta leku berean utziko dira lanak 1 4.00etan. Informazio gehiago 602840 telefonoan.

Julene Azpeitia VII. IPUIN LEHIAKETA antolatu du Zumaiko Udalak literatur sorkuntza bultzatu asmoz. Lanek euskarazkoak izan behar dute eta aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

euskizunak

IPARRAGIRRE HEGALARIA antzerki musikala. 350 artista egongo dira eszenan: 150 antzezle, Donostiako Orkestra Sinfonikoa, EHuko Abesbatza, Areatzako Banda, Arratia eta Otxandioko Abesbatza eta Gontzal Mendibilen ahotsa. Larunbatean izango da, Loiolan, gaueko bederatzietan.

6 NEMEN 9:**"Hasten egotiak ez dau esan nahi edozein taldekin jo bihar dozunik"**

Asier Etxaniz eta Alberto Gonzalez gitarrak; Martzel Mendizabal baterla; Josu Iriando bajoa eta Mikel Kornejo ahotsa. Bost gazte hauek osatzen dute sortu berria den "Sei nemen bederatziko" musika taldea. Maketa gaur hasita, irailak 16, salgai dago eta hilaren 23an joko dute, estraineko aldiz, Elgoibarren. Herriko Antzokian izango da, Kokoek antolaturiko beldurrezko komiki eta filmeen zikloaren barruan. Kontzertu uberezian izango da, abestiek ere giroarekin bat egingo dute, literrorea, estuasuna...".

- Nola sortu zen "Sei nemen bederatziko"? Danak gera musika zaliak, Martzelok umetan detergente botiak eta idazteko makinaren fundak erabiltzen zitxun baterixa bezela. Gero, batzuk gitarrak erosi zitxugun eta zapatuetan elkartzen eta jotzen hasi ginan, talde bat sortzeko anbizivakin ez, baina konturatu orduko "Sei nemen bederatziko" sortu zan, orain urte terdi edo.

Izenak ba all du esanahirik? - Ez. Izen neutro bat nahi gendun, ezerrekin identifikatzen ez dana. Eta bide batez estetikua ere izatia, bistatik sartzia, "6nemen9".

• **Zer musika tipo jotzen duzue?** - Ez daka etiketarik. Bestiek esaten ez daben artian, gure musikia ez da estilo konkretu baten barruan sartzen.

• **Eta letrek, zer diote?**

- Danetik, ez dao obsesio politiko edo sexualik. **Letrek**, intepretazio libria itxeko aukeria ernaten dabe. Ez dake estribillo edo esloganik.

- **Entsaioak, zer?** - Oso gutxi ensaiatzen dou. Nahiko atipikuak gera, ez gera kapazak abesti bat bi bider segidan jotzeko ensaio baten.

— **Nahiago dituzue lokal itxiak** Bai. Girua hobia da, jendiak badaki zertara dixen eta soinu aldetik ere askoz hobeto. Ideala diskoteketan jotzia izango zan.

- **Alderik ba al dago talde batekin edo beste batekin jotzean?** - Bai, kontzertu on hatian talde printzipala teloneruentzat lagungarria izan bihar da eta teloneruak ere bestieri sarrera ona in bihar diue. Horregatik, hasten egotiak ez dau esan nahi edozein taldekin jo bihar dozunik.

- **Maketa eta gero?** - Make-tian 350 ale etara ditxugu (50(1 pta salgai Malapen, Oiz-Mendin eta Txuri Beltz-en). Horrek kriston ilusiva itxen dau baina oin dakagun trotiakin gaitza da epe motzera diskua etaratzia, gehixao matxakau hiharko gendun. Baina, batek dakil

Salerosketak

GARAJE BAT alokatzen da ganbara eta guzti Juan Mugerza kalean (pista beltza).
 'w 74 21 86
 Gaeuz 7 Inetatik 10etara

12 helozidadeko MOUNTAIN-BIKE TXIKI BAT saltzen da. Erdiberria. Prezioa: 100.000 pzta.
 O 74 28 32

GARAJEA ALOKATZEN DA ganbara eta guzti. Juan Mugerza kalea. (Pista beltza)
 z' 74 07 10 Gaueko 7,30etatik 10etara.

Bainu gelarako MANPARA, ARMAIRUA eta ISPILUA saltzen ditut. Prezio oso onean.
 u" 74 19 81 Ana Mari

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)
 ni 12 04 44
 Deitu eguerdiko 1,30-2,00 bitartean

MOUNTAIN-BIKE bat eta URETAKO PAIPO bat salgai, biak prezio merkean.
 u" 74 26 91

Jende famatuaren ARGAZKI ORIGINALAK SALTZEN DITUT: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Dunean Du,... eta abar. Idatziez adazue eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 sello.
 Helbidea: Igor Galo.
 Zarauz Hiribidea 13 -3 ezk.
 20 009 Donostia

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
 17 74 21 64

Karabana bat sartzeko GARAJE EDO LOKAL BAT ALOKATU nahi dut.
 Tg 74 29 52
 Gaeuz 8-10 bitartean

MOTOR bat daukat SALTZEKO G.A.C. Onix 2. 900 km.
 Gaeuz, 8etatik aurrera.
 23* 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.
 .zr 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
 IT 74 18 51

LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT saltzen da Urasandin.
 72 74 21 86

Lana

HEZKUNTZA ZIENTZITAN LIZENZIATUAK (Pedagogia) OHO eta REMeko klase partikularrak emango ditu Iraitetik aurrera. Talde murriztuak
 IT 74 39 24 Maite

PARTIKULARRAK ematen ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.
 r.s. 74 28 53 Alazne

Edozein TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN da eta "Curriculum Vitae"ak egiten dira.
 10 66 66

FRANTSES KLASEAK ematen ditut.
 tr 74 04 59 2etatik 3etara eta 8etatik aurrera deitu.

BBB eta UBiko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK ematen ditut. Euskaraz eta erdaraz.
 Tr 74 23 01 Jokin

Etxebizitzak

LOGELA BAT DAUKAT ALOKATZEKO DONOSTIAN (Gros). Egongela dauka. Ikasleak, irakasleak edo langileak.
 a 27 72 07

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115ln?, itsasora begira eta gela guztiak kanpokaldera ematen.
 Ir 60 41 20
 Arratsalde 8etatik aurrera

Pertsona bat behar dut DEUSTON pisu bat konpartitzeko.
 u• 74 07 40 Nerea
 Goizez 9-2 bitartean

ETXE BAT SALDU NAHI NUKE Pedro Muguruza Etorbidean. Bi gela, saloia, sukaldea eta komuna ditu.
 vi 74 30 97

Ikasleentzako LOGELA BAT ALOKATUKO nuke astean zehar. Jatorduak eta arropa garbiketa harne. Famili giroa.
 Tz 74 40 85

PISU BAT ALOKATUKO genuke. Deitu 9,30etatik aurrera.
 Tr 12 13 69

PISU BAT daukat salgai Ernuaranbiden.
 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Muguruzan. Egoera oso onean eta guztiz amueblatua. Bigarren pisua.
 s' 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako hondartzako lehen ilaran. Iraila.
 s• 74 27 02 Ana

APARTAMENTU BAT DAUKAT BENIDORMen alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua.
 Er 74 16 57 / 11 32 15

PREMIANO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak ■■■ 461111
 Txanda hartzeko ■ 743354
 Planning ■ 742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia)..464622
 Gurutze Gorria ■ 743864
 Mendaroko Ospitala ■ 756264
 Drogomenpekotasun Z ■ 741008
 Odol Emaileak ■ 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak ■ 740442
 PESA (Eibar) ■ 112131
 Taxi Geltokia ■ 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ■ 744366
 Kirol Zerbitzua ■ 744415
 Kultura Zerbitzua ■ 742158
 Mendaroko Udala ■ 756100
 Ongizate zerbitzua ■ 743736
 Udaletxea ■ 744050
 Udaltzaingoa ■ 741394

BESTELAKOAK

Caritas ■ 740442
 Elgoibarko Izarra ■ 741626
 IMI ■ 744196
 Kontsumo Bulegoa ■ 743088
 Liburutegia ■ 743525
 Musika Eskola ■ 742145
 Minixeta ■ 744315
 Parrokia ■ 740042
 Polikiroldegia ■ 741361
 Postetxea ■ 744547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia ■ 740526

I KASTETXEAK

Herri eskola ■ 740879
 I.M.H. ■ 744132
 Institutua ■ 740267
 Ikastola ■ 744141
 L.H.1 ■ 744180
 Pilar Ikastetxea ■ 741331

KOMUNIKABIDEAK

BARREN ■ 744112
 El Diario Vasco ■ 744073
 El Mundo ■ 742267
 El Correo Espariol ■ 741082
 Egin ■ 118421
 Deia ■ 744157
 Zazpiki ■ 743474

OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol emaileen egoitzan (P.M. Urruzuno 8)

19,00 KOMIKI ERAKUSKETA

Gaia: Beldurrezko generoa

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Kokoe
Hilaren 30a arte

22,15 ZINEA

"Ocurri6 cerca de su casa"

✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 200 pta.
(Kokoek antolatutako beldurrezko generoari buruzko jardunaldiak)

17 LARUNBATA

12,00 KALE ANTZERKIA

Antolatzailea: AEK Euskaltegia

19,30,22,15 ZINEA

"Speed"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 350 pta.

10 IGANDEA

8,00 BESA1DERA MENDI IRTEERA

✓ Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

10,30 BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Sister Act II"
■ Herriko Antzokian
Sarrera: 200 pta.

19,30,22,15 ZINEA

"Speed"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 350 pta.

HASTELEHENA

20,00 SASKIBALOI TALDEAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Speed"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 350 pta.

20 ASTEARTEA

12,30 "KIROLA EUSKARAZ" PROGRAMAREN AURKEZPENA

Gonbidatua: Diego Garcia maratollaria

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Deba Garaiko eta Beheko Udal Kirol eta Euskara zerbitzuak.

22,15 ZINEA

"Sister Act II"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 200 pta. (Ikuslearen eguna).

22 OSTEGUNA

22,15 BIDEO EMANALDIA

"El cabo del terror"
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Kokoe
Sarrera doan.

21 OSTIRALA

22,15 ZONBIEN GAUA

"La noche de los muertos vivos" eta "Braindead" filmak
✓ Herriko Antzokian
Atsedendian 6 NEMEN 9ren KONTZERTUA
(Kokoek antolatutako beldurrezko generoari buruzko jardunaldien barruan)

txandak

MINVIAZEAUZ:

17, larunbata: Etxeberria
18, igandea: Etxeberria
19, astelehena: Ormazabal
20, asteartea: Ormazabal
21, asteazkena: Ormazabal
22, osteguna: Ormazabal
23, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

18, igandea: FOTERO

ZINEA

SPEED

1993 USA

Zuzendaria: Jan De Bont
Aktoreak: Keanu Reeves, Sandra Bullock, Dennis Hopper.

Jack Traven poliziak, Los Angeles-eko Polizia Sail Berezian egiten du lan. Gizon ausarta, gaizkileen izakera sakonki ezagutzen du. Ezagutza honi eta zorte piska bati esker, bizirik dag oraindik. Baina egun batean frogatzen du zail bat gainditu beharko du: eztanda egiteko prest dagoen bonba bat duen autobusa kontrolatu beharko du. Baina abiadura 70 km orduko baino motelagoa bada, autobusak eztanda egingo du. Tentsioa, abentura eta akziozoko filmea.



1v KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGO1BAR TEL- FAX 74 02 36

014

GLRUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASIE
ELKARTEKO BAZKIDE

P.E.T.c.entre ES 406!

94-95 IKASTURTEA irailaren tietik eta urriaren 3tik aurrera talde berriak
Ingelesean, frantsesean eta alemanieran matrikulatzeko epea zabalik:

MAILAK:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
Sarrerako azterketaren arabera.

TALDEAK:

- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- itzuipea (bi hizkuntzetara)
- Literatura
- Azterketa ofizialak (PET, London University eta eskola ofiziala)
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

ORDUTEGIA:

Goizez-arratsaldez-gauetz
(egunero edo astean egun batzuk). Intentsiboak

ADINA:

Adin guztiak. **5 urtetik gorakoentzako klaseak**



e e i e e in zattez balacie

4. 11

C.D. IMGC/IBAR 1- - - -

tarunbatean,
diko 12etan
banatuko
laKIDE IY A HET A V
Plaza Handion.
dira

vgingr da411

6 talderekin 150 neska-mutil futbolean
Zuen guztion beharrearrean gaude

SEAT TOLEDO BERRIA



LUZAROAN IRAUTEKO EGINA

SEAT *Bai!*

Eibar Motor, S. A. Otaola Hiribidea, 17. Tel. 10 36 42 EIBAR